

EUSKOTRENEK UZTAILAREN 24AN GASTEIZKO TRANBIAN GAUEKO ZERBITZU BEREZIA ESKAINIKO DU “BLUSAREN ETA NESKAREN EGUNA” DELA ETA

Ostegunean (uztailak 25), 13:00etatik aurrera Legebiltzarra eta Angulema artean zirkulazioa kendu egingo da

UZTAILAK 24: GAUEKO TRANBIAK

Euskotrenek uztailaren 24tik 25erako gauean Gasteizen tranbien zerbitzu berezia eskainiko du, Arabako hiriburuan ospatuko den “Blusaren eta Neskaren Eguna” dela eta.

23:10 – 6:30 artean (gutxi gorabehera) ibiliko den zerbitzu berezi honen ezaugarriak honako hauek izango dira:

- Legebiltzarra – Abetxuko, 30 minuturik behin noranzko bietan.
- Legebiltzarra – Ibaiondo, 30 minuturik behin noranzko bietan.

UZTAILAK 25: MOZKETA ETA ZERBITZUA INDARTZEA

Ostegunean uztailaren 25ean Legebiltzarra-Angulema tartean ez da zerbitzurik egongo eguerdiko 13:00etatik aurrera.

AZKEN IRTEERAK

- Ibaiondotik 12:30ean
- Abetxukotik 12:34an
- Angulematik Abetxukora 12:53an
- Angulematik Ibaiondora 13:01ean

Ohiko zerbitzua honako tranbia hauekin indartuko da:

- Ibaiondo – Angulema, 11:48an
- Kañabenta – Angulema, 11:42an eta 12:27an

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen honako telefono zenbaki honetara dei dezakete 944 333 333. Horrez gain, informazioa jaso dezakete www.euskotren.eus web gunean, [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) twitter gunean eta Euskotreneko APP ofizialean.

Igorpen data: ostirala, 2019ko uztailaren 19a